



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2013ko apirilaren 30a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2013ko otsailaren 5eko eta martxoaren 7ko ezohiko bilkuretako akten zirriborroak.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren Euskararen II. Plan Estrategikoaren indarraldia luzatzea.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdi zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa.
- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikinaren erosketari buruz.
- 6.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, honako gaiari buruz: Orioko Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinen jabeen komunitatearenak diren lurrak Orioko Udalari lagatzeari buruz.
- 7.- Dagozkion erabakiak hartzea Arantxa Iñurrategi Enbilenak diren hainbat lur Orioko Udalari lagatzeari buruz.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren ardurapeko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko gizasemeen eta emakumeen berdintasunerako I. plana.
- 10.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako mendekotasunaren arreta hobetzeko planari buruzkoa.
- 11.- Onartzea, egoki bada, alkatetzak aurkeztutako mozioa, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroa eraikitze lanen finantzazioari buruzkoa.
- 12.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2013KO OTSAILAREN 5KO ETA MARTXOAREN 7KO EZOHICO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2013ko otsailaren 5ean egindako ezohiko bilkurako akta.

Era berean, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2013ko martxoaren 7an egindako ezohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALAREN EUSKARAREN II. PLAN ESTRATEGIKOAREN INDARRALDIA LUZATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko martxoaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

URTEBETEZ LUZATZEA Orioko Udalaren Euskararen II. Plan Estrategikoaren indarraldia. Luzapenaren ondorioz, plan estrategikoaren indarraldia 2013ko abenduaren 31 artekoa izango da.

3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN KIROL MEDIKUNTZA, FISIOTERAPIA ETA HIPOXIA ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean ez da lehiatzailearik aurkeztu.

Kontratazio Mahaiak, espedientean jasota dagoen Udaleko kirol teknikariaren txostena kontuan hartuta, lehiaketaren adjudikazioa hutsik uztea proposatzen du, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

HUTSIK UZTEA Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuaren gestioaren kontzesioaren kontratazioa, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN AISIALDI ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da:

- KASTORE GEST, SL

Kontratazio Mahaiak, espedientean jasota dagoen Udaleko kirol teknikariaren txostena kontuan hartuta, lehiaketaren adjudikazioa hutsik uztea proposatzen du, aurkeztu den lizitatzaille bakarrak ez duelako betetzen baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria, kontratuaren epeari eta lizitazioaren zenbatekoari dagokienez.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

HUTSIK UZTEA Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdi zerbitzuaren gestioaren kontzesioaren kontratazioa, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 'NUEVA CERÁMICA AROCENA' ENPRESAREN ONDOAN DAGOEN ETXELUZE IZENENKO ERAIKINAREN EROSKETARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2012ko abenduaren 26an egindako ezohiko bilkuran:



1.- ONARTZEA Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikina erostea. Eraikina ARIN Y EMBIL, SRC entitate merkantilaren jabetzapekoa da eta salerosketaren prezioa 135.975 eurokoa izango da: 80.000 euro ordainduko dira 2012ko udal aurrekontuaren kargura eta gainerako 55.975 euroak, 2013ko udal aurrekontuaren kargura, konpromisoko kreditu gisa; nolana ere, saltzaileari 21.000 euroko zenbatekoa ordainduko zaio, salerosketaren azken prezioaren aurrerapen gisa.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, salerosketaren dokumentu pribatuak edota eskritura publikoa sina ditzan Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzeko.

3.- Udalaren erabaki honek indarra izan dezan, honako BALDINTZA bete beharko da: aldez aurretik, eraikinaren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria aurkeztu beharko da, behar bezala kreditatzeko higiezinaren titularra zein den eta ziurtatzeko eraikinak ez duela inolako kargarik; baldintza hori bete ezean, Udalaren erabakia bertan behera geratuko da, inolako eraginik gabe.

Espedientean erantsi da dagoeneko eraikinaren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria, behar bezala kreditatzen duena higiezinaren titularra zein den eta eraikinak ez duela inolako kargarik.

2012ko abenduaren 26ko udalbatzarraren erabaki horretan akats material bat izan da eraikinaren salerosketa-prezioari dagokionez: jabeekin adostutako prezioa, azkenean, 156.975 eurokoa izan zen, eta ez, erabakian jasota dagoen bezala, 135.975 eurokoa.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta proposatzen du mahai gainean uztea gaia, Ogasuneko batzorde informatzaileak diktaminatu arte; adierazten du, baita ere, bere talde politikoak ezin izan duela espedienteko dokumentazioa aztertu.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta gogorarazten du espedientean eguneratutako tasazio bat egon behar lukeela, eta gauko egunez horrelakorik ez dagoela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, EAJk egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:



MAHAI GAINEAN UZTEA Etxeluze izeneko eraikinaren erosketaren gaia, Ogasuneko batzorde informatzaileak dagokion diktamena eman arte.

6.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO GAIARI BURUZ: ORIOKO ANTXIOLA KALEKO 5, 7 ETA 9 ZENBAKIDUN ERAIKINEN JABEEN KOMUNITATEARENAK DIREN LURRAK ORIOKO UDALARI LAGATZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2011ko irailaren 29an egindako ezohiko bilkuran:

*1.- **ONARTZEA** Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako jabeen komunitateek Udalarari egin dioten eskaera, beren jabetzapeko 494,14 m²-ko lur partzela bat lagapenean hartzeko, honako **BALDINTZA** honekin: jabeen komunitate horiek honako lanak egin beharko dituzte, aldez aurretik: dauden egiturazko kalteak konpondu, azaleko uren bilketa behar bezala bideratu eta hondatutako zoladurak konpondu.*

2.- Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako jabeen komunitateek ez badute Udalak jarritako eta goian jasotako baldintza hori betetzen, udalbatzarraren erabaki hau bertan behera geratuko da, indarririk gabe.

Udal arkitektoak 2012ko irailaren 24an egindako txosten teknikoa ikusita, Orioko Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako Jabeen Komunitateek konpondu dituzte egiturazko kalteak, azaleko uren bilketa behar bezala bideratuz eta hondatutako zoladurak konponduz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko apirilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako Jabeen Komunitateen jabetzapeko 494,14 m²-ko lur partzela pribatuaren lagapena.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, lagapenaren eskritura publikoa sina dezan Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzeko.

7.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA ARANTXA IÑURRATEGI ENBILENAK DIREN HAINBAT LUR ORIOKO UDALARI LAGATZEARI BURUZ.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udal arkitektoak txostena egin du gaiari buruz, 2013ko martxoaren 26an.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko apirilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Arantxa Iñurrategi Enbilek Orioko Hondartza bidearen inguruan daukan 64,13 m²ko azalerako partzela pribatuaren lagapena.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, lagapenaren eskritura publikoa sina dezan Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzeko.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ARDURAPEKO IZAERA PERTSONALEKO DATUEN FITXATEGIAK SORTZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua ezartzen du administrazio publikoen titularitatepekoak diren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortu, aldatu edota deusezteko bide bakarra Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor bat dela; artikulua horrek zehazten du xedapen horren oinarritzko edukiak zein izan behar duen.

Datuen babesari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta ezartzen du bertan inskribatu behar direla legearen aplikazio-esparrukoak diren fitxategiak.

Bestalde, lege hori garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen du Euskal Erkidego Autonomoko ente publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi behar diotela izaera pertsonaleko datuen sorkuntza, aldaketa edota deuseztapena, Datuak Babesteko Erregistroan inskriba ditzan; jakinarazpen hori egiteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak 2005eko uztailaren 21eko ebazpenaren bidez onartutako eredu normalizatua erabiliko da.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko apirilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- SORTZEA Orioko Udalaren ardurapeko izaera pertsonaleko datuen fitxategi hauek :



- 1.- Udal espedienteen gestioa.
- 2.- Dokumentuen sarrera eta irteeren Erregistro Orokorra.
- 3.- Artxibo orokorra.
- 4.- Ondasunen inbentarioa.
- 5.- Kontratazio administratiboen espedienteak.
- 6.- Fitxa soziala.
- 7.- Zinegotzien interesen erregistroa.
- 8.- Liburutegia.
- 9.- Jarduera ludikoak eta kultur zerbitzuak.
- 10.- Kirol espedienteak.
- 11.- Kiroldegia.
- 12.- Kanpina.
- 13.- Danbolin Musika Eskola.
- 14.- Euskararen sustapena.
- 15.- Babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileak.
- 16.- Hirigintza espedienteen gestioa.
- 17.- SIGEko mugimenduak.
- 18.- Udaltzaingoko espedienteak.
- 19.- Hilerriaren gestioa.
- 20.- Bideo zaintza.
- 21.- Sartu-irteeren eta presentziaren kontrola.
- 22.- Planeamendurako eta gestio urbanistikorako tresnak.
- 23.- Turismo bulegoa.

2.- Udalaren erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko zaio, horretarako zehaztutako prozedura normalizatuaren bidez, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EMAKUMEEN ETA GIZASEMEEN ETA BERDINTASUNERAKO I. PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizate, Enplegu eta Merkataritza batzordearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko emakumeen eta gizasemeen berdintasunerako I. plana.



10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIPUZKOAKO MENDEKOTASUNAREN ARRETA HOBETZEKO PLANARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen mozioak honela dio, hitzez hitz:

MENDEKOTASUNAREN ARRETARAKO GIPUZKOAKO HOBEKUNTZA PLANAREN INGURUKO MOZIOA

2013ko urtarrilaren 28an Gipuzkoako Foru Aldundiak "Mendekotasunaren Arretarako Gipuzkoako Hobekuntza Plano" aurkeztu zuen Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak markatzen duen eskumenen doiketari dagokionean. Aipatutako aurkezpena Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta udaletako alkateak deituriko batzar batean egin zuen, batzarkide eta alkateei etxeko laguntza zerbitzuaren eta adineko pertsonentzako udal egoitzen eskualdaketarako bere formula eta proposamena aurkeztuz. Soilik berea, alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, aurretik arlo hauetan eskumenak dituzten eta izango dituzten udalekin ezertarako kontatu gabe.

Etxeko laguntza zerbitzuaren eta udal egoitzen eskualdaketa zaila eta korapilotsua da dudarik gabe, horrela izan da iraganean, eta horrela izango da baita etorkizunean ere, batipat, baldin eta Gipuzkoa Foru Aldundiak ez badu bere jarrera erabat aldatzen. Legealdi hau hasi arte, udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlan bat egin zen, talde politiko guztiek beren ordezkari zutelarik, bereziki udal egoitzak zituzten herrietakoena, gai honi irtenbide adostua eta bateratua emateko asmoz. Gipuzkoako Foru Aldundiari behin eta berriz eskatu zaion arren, aurretik hasitako interlokuzio mailarekin jarrai dezan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eten egin du udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean antolatuta zegoen elkarlana. Erabat.

Udaletako ordezkari politiko gehienek ez dute ezagutzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plana, ez dute ezagutzen noiz eta nola ekingo zaion Planari, ez dute ezagutzen ze inpaktu ekonomiko izango duen beren herrietako aurrekontuetan, ez dute ezagutzen nola eta zeinek hartuko duen parte negoziaketetan udalen izenean, etab. Finean, prozesua goitik behera gertutik eta lehen eskutik ezagutu beharrean, erabateko ezagutza faltarekin aurkitzen dira Gipuzkoako udalak. Baina ez hori bakarrik: behin eta berriz bi eskumenen garapena edota eskualdaketa bereizteko eskatu ondoren, bata bestearekin lotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Akats ikaragarria da EAJ/PNVren ustetan, denbora-galtze izugarria, berehalakoan zuzentzea merezi duelarik.

Hori guztia kontutan izanik, honakoa eskatzen dugu:



1.- Orioko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio geldi dezan "Mendekotasunaren Arretarako Gipuzkoako Hobekuntza Plana"ren prozesua, aurretik, udal ordezkari guztiekin eta hamasei udal egoitzetako alkateekin prozesu amankomun bat adostu arte.

2.- Orioko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bereizi ditzan etxeko laguntza zerbitzuaren eta udal egoitzen eskumenen eskualdaketa prozesuak, biak modu independentean burutuz.

3.- Orioko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio udal egoitzen hamasei herrietako alkate bakoitzarekin adostu dezan udal egoitzen eskualdaketa eta etorkizuneko kudeaketa eredia.

4.- Orioko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio ez dezan etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura eta mailaren proposamenik egin eskumen doiketari dagokionean. Eginkizun hori, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak markatzen duenaren arabera da, eta ez dagokio berari.

5.- Orioko Udalak bere zerbitzu teknikoen bitartez "Mendekotasunaren Arretarako Gipuzkoako Hobekuntza Plana"n, gure udalean izango duen inpaktu ekonomikoaren txosten bat egingo du hilabete bateko epean, baita Planaren azterketa juridiko bat ere. Txosten horiek egin eta berehalakoan udal ordezkari guztiei helarazi ondoren, Gizarte Zerbitzuetako batzordea deituko da, Plana eta udaleko zerbitzuen txostenak bertan aztertuak izan daitezzen.

6.- Orioko Udalak Gizarte Zerbitzuetako batzordea deituko du, etxeko laguntza zerbitzuaren eskumenen eskualdaketa dagozkion informazio azpimarragarriak dauden aldiro.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen Gipuzkoako mendekotasunaren arreta hobetzeko planari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATETZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROA ERAIKITZEKO LANEN FINANTZAZIOARI BURUZKOA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Alkateak aurkeztu duen mozioak honela dio, hitzez hitz:

Martxoan inauguratu zen Arraunetxe Arraun eta Piraguismo teknifikazio zentroa. Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren laguntza izan du inbertsioa ordaintzeko. Halere, milioi eta erdi eurotik gorakoa izan da Orioko Udalaren ekarpena.

Orioko EAJ alderdiak gogor salatu du Orioko Udalaren gobernuaren gestioa. Eusko Jaurlaritzak 300.000 euro gehiago agindu zituela adierazi zuen Orioko EAJ alderdiak Diario Vasco egunkarian 2011. urteko azaroaren 24ean. Hemen duzue hitzez hitz, gaztelaniaz, jatorrizko bertsioa gaztelaniaz publikatu zelako: “Además de esto, como en toda consecución de subvenciones previamente a la firma de las mismas, se apalabró una aportación de otros 300.000 euros por parte del Gobierno Vasco”. Alegia, Eusko Jaurlaritzak emanak zituen 700.000 euro, baina Eusko Jaurlaritzak beste 300.000 euro agindu zituela adierazi zuen Orioko EAJ udal-taldeak.

Bere garaian, Jaurlaritzaren kirol zuzendaritzak ukatu egin zuen diru-laguntza honen esleipena egiteko konpromisoa hartu zuela. Gauzak horrela, aurreko gobernuari egindako diru-laguntza eskaria errepikatuko dio Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta galdetzen du ea zer den mozioak eskatzen duena. Alkateak erantzuten dio, esanez mozioarekin lortu nahi duena dela adostea Udala osatzen duten talde politiko guztien artean eskari bat, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari zuzendua, 300.000 euroko finantzazio gehigarri bat eman dezan, kontuan hartuta bere garaian Eusko Jaurlaritzak hitz eman zuela diru-kopuru hori emango ziola Udalari.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du berriro hitza eta adierazten du bera epaile eta parte dela, aldi berean, auzi honetan, gaur egun Eusko Jaurlaritzako Kirol eta Gazteriako zuzendari kargua betetzen baitu; hori dela eta, adierazten du bere talde politikoak ez duela parte hartuko bozketan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA alkateak aurkeztu duen Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren eraikuntza finantzatzeari buruzko mozioa, goian jasota dagoen



bezalaxe; eta, ondorioz, **ESKATZEA** Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari 300.000 euroko finantzazio gehigarri bat eman dezan, eraikin horren lanetarako.

EAJ talde politikoa osatzen duten sei zinegotziek (Redondo, Ostolaza, Del Hoyo, Salsamendi, Cotado eta Etxeberriak) ez dute bozketan parte hartu, goian azaldutako arrazoiagatik.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du, aurrerantzean, bere talde politikoak kontrako botoa emango diela udalbatzarrean aurkeztutako mozio guztiei, iruditzen zaielako mozioetan planteatzen diren gaiak udal batzorde informatzailetan bideratzeko modukoak direla.

Iparragirre zinegotziak adierazten du, baita ere, hori izango dela erabiliko duten irizpide nagusia; baina horrek ez duela esan nahi, kasu zehatzen batean, beste botoren bat eman ez dezaketenik.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,